

Sagardotegiko bezeroen %20a **turistak** dira

Euskadiko sagardotegietara doazenen profil soziodemografikoa eta motibazioak ezagutzeko azterlana egin zuen iazko txotx denboraldian eta uda sasoian Eusko Jaurlaritzako Basquetour elkarte publikoak. Hona ondorioetako bat: gehienak (%80 inguru) ohiko bezeroak dira, eta, turistak, aldiz, %20. Azken hauen bereizgarria da gaua bertan eman beharra, %60 ez baita Euskadin bizi. Horrelako bisitariek asteburuko bidai



egin ohi dute eta, sagardotegira joatea, inguruko beste leku batzuetara bisita edo beste baliabide turistiko batzuk ere barneratzen dituen esperientzia baten parte da.

Ohiko bezeroei dagokienez, normalean taldeko ekimena izaten da, eta batez beste 10,5 laguneko taldea izan ohi da.

Uda sasoian bi profil antzematen dira. Batetik, bere ohiko bizilekutik kanpora ostatua

hartzen duten bezeroak (%66). Bezero mota honek, Euskadiko beste baliabide bat gehiagotsa bisitatzen ditu sagardotegiak. Euskaditik kanpo bizi diren bezeroak dira nagusiki. Eta bigarren profila (%33) 'betiko bezeroena' da. Horrelako lagunak Euskadin bizi dira, batik bat Donostia aldean, eta udan ez ezik txotx garaian ere agertzen dira sagardotegietara.